

EUSKO LEGBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO



Dokumentu mota / Tipo de documento:
Nori zuzendua / Dirigido a:

OSOKO ZUENKETA
LEGBILTZARREKO MAHAIA

Proposatzailea / Proponente:

ARRUABARRENA, MIKEL (EA-NV)
ANDUEZA, ENEKO (ES-SV)

Data / Fecha:

2021.12.01

Espediente zenbakia / Número de expediente: 12\11\02\01\00286


Ekimenaren izenburua / Título de la iniciativa: ITP Aero empresatik kaleratutako langileak berriro lanean hartzeari buruz // Sobre readmisión de trabajadores despedidos de ITP Aero


Eusko Legebiltzarrak adierazi du sektoreak Euskadin bizi duen egoeraren aurrean neurriak hartu behar direla sektorea modu erresilientean egokitzeko, langileen ezagutza espezifikoa mantentzeko eta aprobetxatzeko, bai eta sektoreak enplegari eusteko eta lanbaldintzen prekarizazioa saihesteko dituen erronka berrietara egokitzeko ere. Ildo horretan, ITP Aeroren egoerari dagokionez:

El Parlamento vasco manifiesta que, frente a la situación que vive el sector en Euskadi, deben adoptarse medidas que permitan acomodar el sector de forma resiliente, mantener y aprovechar el conocimiento específico de las y los trabajadores, así como su adaptación a los nuevos retos que afronta el sector con el objetivo principal del mantenimiento del empleo y evitar la precarización de las condiciones laborales. En este sentido, en relación a la situación de ITP Aero:

1- Eusko Legebiltzarrak eskatzen du, negoziájo kolektiboaren eta akordioaren bidez, enpresek eta langileen legezko ordezkariek kaleratzeen ordezko irtenbideak bila ditzatela, enpresek jasaten ari diren zaitasunei aurre egin ahal izan diezaieten, kaleratzeak saihesteko eta kaleratuak berriz hartza ahalbidetzeko koiunturazko formulak aintzat hartuta.

1- El Parlamento Vasco, insta a que, a través de la negociación colectiva y el acuerdo, las empresas y la representación legal de las trabajadoras y trabajadores busquen soluciones alternativas a los despidos, que permitan a las empresas afrontar las dificultades que están sufriendo, considerando fórmulas coyunturales que eviten despidos y posibiliten la readmisión de personas despedidas.





2- Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio aktiboki lagun dezala elkarritzeta-bide horiek irekita egon daitezen.

3- Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio lanean jarrai dezala, sektore osoarekin eta gainerako administrazio publikoekin lankidetzen eta koordinatuta, bakoitzak bere eskumenen eta ahalmen ekonomikoaren arabera, industriak bere gain har ditzan finkatze, lehiakortasun, sustraitze, prestakuntza eta I+G+b erronkak, bai eta enpleguari eta lan-baldintza duinei eusteko erronkak ere. Ildo horretan, Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio zabalik izan dezala enpresaren akziodunen artean sartzeko aukera Finkatuz funtsaren edo antzeko tresnaren bidez, etorkizunean enpresak Euskadin iraungo duela ziurtatzeko.

2- El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a colaborar activamente para que dichas vías de dialogo se mantengan abiertas.

3- El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a seguir trabajando, en colaboración y coordinación con el conjunto del sector y con el resto de las administraciones públicas, cada una en la medida de sus competencias y capacidad económica, a fin de adoptar las decisiones oportunas que permitan a la industria asumir los retos de consolidación, competitividad, arraigo, formación e I+D+i, así como de mantenimiento de empleo y condiciones laborales dignas. En este sentido, el Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que siga manteniendo abierta la posibilidad de entrar en el accionariado de la empresa mediante el fondo Finkatuz, o instrumento similar, con objeto de asegurar a futuro la permanencia en Euskadi de la empresa.

EA-NV

ES-SV

